

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juli Bedia Iriarte

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1919-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Erdiko kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik zaharrena. Aita arrasatearra zen eta ama Oñatikoa. Julik zazpi urte zituela, familiak plaza kantaleko "Bar Central" hartu zion aurreko ugazaba zen "Txotxuena"ri. Etxeko lan guztiagatik, Julik eskola utzi behar izan zuen hamabi urterekin. 1934. urtean taberna utzi eta ile-orratzak egiteko tailer bat jarri zuen aitak. Iturriotz kalean jarri zuen tailerra, Artazubiagako kondeak bertan zuen etxea erosi eta gero. Berrogei langile izatera iritsi zen tailerra, denak emakumezkoak, eurretatik asko senarrak kartzelan zituztenak. Herriko mojek ere hartzen zuten parte, ile-orratzok paketatzen. Bixente Uribetxeberria arrasatearrarekin ezkondu zen Juli, eta alaba bat izan zuen berarekin. Ezkondu eta gero, Julik salmenta negozioan jarraitu zuen, denetarik saltzen eta erosten. Juliren alaba Miren ere egon zen elkarriketan.

Zintak

ARR-156

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-15
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Hamabi urterekin eskola utzi

- **Erref:** ARR-156/002
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:

Hamabi urterekin utzi zion eskolari, etxean lan asko zegoelako. Taberna izateaz gain, etxean Zerrajera lantegirako lanak egiten zituzten. Julik zazpi urte zituela "Bar Central" hartu zuen familiak.

2. Txotxuena taberna hartu zuten

- **Erref:** ARR-156/003
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Zerrajeran lan egiten zuten Aramaioko eta Bergarako apopiloak izaten zituzten etxean. 1934. urtean taberna eskualdatu zuten, eta gerraostean betiko ezkutatu zen. Taberna hori Txotxuena izenez ezagutu zen Juliren familiak hartu aurretik.

3. Kondearen etxean tailerra

- **Erref:** ARR-156/005
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Errepublika etorri zenean ospakizun eta bandera asko egon ziren. Taberna utzi zutenean, lehengusina ile-apaintzaile batek eskatuta, ilerako urkilak egiteko tailertxo bat jarri zuen aitak. Tailerra 40 langile izatera iritsi zen. Tailerra jartzeko kondearen morroien etxea (gaur Juli bertan bizi da) erosi zuten.

4. Tailerreko langileak presoan emazteak

- **Erref:** ARR-156/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Hasieran lan guztia eskuz egiten zuten, eta makina automatikoak ekarri zituztenean, langileak kaleratzeari ekin zioten. Langile guztiak emakumezkoak ziren; gehienak senarrak preso zituztenak.

5. Tailerrera materiala kupoaren bidez

- **Erref:** ARR-156/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:21:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gerraren frontea Arrasateko joan zenean, aitzak jarri zuen ilera urkila tailerra. Kupoaren bidez lortzen zuten tailerrean lantzeko materiala. Bilbotik trenez bidaltzen zieten. Kupoarekin lortutakoa nahikoa ez bazen, estraperloan lortzen zuten gehiago.

6. Paketatzea mojen lana

- **Erref:** ARR-156/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:21:47. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Urkilentzako trokelak Arrasateko lantegietan egiten ziren. Urkilak altzairuzko alantzearekin egiten zituzten. Tailerreko lan banaketa azaltzen du. Paketatzea Kontxesioko mojek egiten zuten.

7. Lana soman (destajuan) egiten zen

- **Erref:** ARR-156/010
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Hasieran, Irungo Palmera lantegiak hartzen zuten ekoizpen guztia. Geroago, merkataritza-agenteen bidez saltzen zituzten urkilak. Kontabilitatea Juliren ardura zen. Lana somara (destajuan) egiten zen, eta egunean seitik hamabi pezetara irabazi ahal izaten zuten langileek.</p>

8. Sindikatuaren kexa

- **Erref:** ARR-156/011
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Sindikatuak kexa bat jarri zuen tailerraren kontra eta inspektorea etorri zen aztertzeraz. Tailerra zegoen eraikuntza Artazubiagako kondeari erosi zioten. Tabernari eta industriari familiakoa da Juli. Ezkondu zen arte jardun zuen etxeko tailerrean.

9. Esnearekin zihoala, bonba-eztanda

- **Erref:** ARR-156/012
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Esneduna Santa Ageda bideko trintxeraraino etortzen zen, eta bezeroek han jasotzen zuten esnea. Juli, esnearekin etxera zetorrela, bonba bat oso hurbil lehertu zen. Etxean hiru senide gaixorik zeuden, eta familiak ezin izan zuen ihes egin.

10. Morteroa etxe barruan lehertu

- **Erref:** ARR-156/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Mortero bat etxean sartu zen amandrearen logelan, bera ohean zegoela. Orduan, Oñatira joan ziren, baina denbora gutxirako. Oñatin Joxe arotzaren etxean egon ziren.

11. Gerran ere plazara dantzara

- **Erref:** ARR-156/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gerra denboran, plazako erromeriak ez ziren eten. Bonbardaketak hasten ziren arte, jendeak dantza egiten zuen.

12. Julik ez zuen kalabazarik ematen

- **Erref:** ARR-156/016
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dantzara joatea gustatzen zaion, baina amak goiz etxeratzeko agintzen zion. Mutilek dantza "mesedez" esanda eskatzen zuten. Julik ez omen zion inori kalabazarik ematen. Bera umea zenean ez zegoen abade-etxerik; abadeak etxe arruntetan bizi ziren.

13. Ilerako urkila ezberdinak

- **Erref:** ARR-156/018
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:41:26. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Urkilak margotzeko aireztapen oneko lokala behar zuten, eta horregatik erosi zitoten etxea kondeari. Urkila mota ezberdinak aipatzen ditu. Martin Bedia zen tailerraren izena.

14. Herriko dendak

- **Erref:** ARR-156/019
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Orduko denda batzuk aipatzen ditu. Azkarateren okindegia. Salturriren harategian erosten zuten etxerako okela. Urionena gozo-denda, "Café Universal" ostatua. Estankoa. Ehun eta hari denda.

15. Dendako ordainketak atzeratuta

- **Erref:** ARR-156/020
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:50:07. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Dendan erositakoaren ordainketa atzeratzea ohikoa omen zen garai haietan. Dendariak liburuan idazten zituen zorrak, eta bezeroek kintzena kobratzen zuenean berdintzen zituzten zorroak. Amarengandik jasotako sukaldaritza jakinduria du Julik.

16. Eztei-oturuntza etxean

- **Erref:** ARR-156/021
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Arrainduna etxeko ateraino etortzen zen. Senargaia auzotarra izan zuen. Parrokian ezkondu eta bazkaria etxean izan zuten, amaren lagun oñatari sukaldari batek prestatutakoa. Juli ezkon-bidaian dirua gastatzearekin penatuta zegoen, baina Madrilera joan ziren hamabost egunerako.</p>

17. Bizi guztia salmentan jardundakoa

- **Erref:** ARR-156/024
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:58:22. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Ezkondu eta gero Julik bere kasa jarraitu zuen salmenta negozioan. Aurkitzen zituen gauza guztiak erosi eta saltzen zituen, gehiena estraperloan. Tabakoa, alanbrea, edozer. Euskal Herrian zehar ibiltzen zen salmentan.

18. Senarrarekin ondo konpontzen zen

- **Erref:** ARR-156/025
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bilbora jai egunetan joan behar izaten zuenean, berak lanean ziharduen bitartean senarra futbola ikustera joaten zen. Alaba bat izan zuten, Julik 42 urte zituenean.

19. 7.000 ogerleko etxeagatik

- **Erref:** ARR-156/026
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:03:20. **Bukatu:** 01:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Bera gaztea zenean bazter guztietan tailerrak sortzen ziren. 7.000 ogerlekogatik erosi zioten etxea kondeari.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com